


Pedro Bildosola, "Aberatsa"

94 urtiak aldian dakaz, baiña gazteïne dago. Eitzara doian edonork bere etxe bueltan topauko dau, kontu batzuk esateko prest beti. Motor zalia, akabo! eta dantzia nunbaitxen egon ezkerro, aurrenengo.

Pedro Bildosola Gorrotxategi, gatzize-nez Aberatsa (trajikin ta korbatiakin ibiltzia gustatzen jakolako) Eitzagabarrenengoa basarrixan jaixo zan 1911ko dizienbriaren 17xan. Eskolak Eitzan bertan hartu zitxuan, baiña bere ustetan "ez genduan gauza haundirik ikasi. Hotza pasau, ez kalefakziñorik ez ezebez. Eskola moruko bat, firmatzen behintzat ikasi!". Etxian-etxian ume mordo bat euan orduan ta makiñatxo okerkerixa eingo ebela ta "bihako! Danerakuak! Gure etxe aurrian euzen idi-metei zuluak eiñ batetik bestera ta holakuak!" Euren aitzak tellerixia ekan ta han laguntzen eban; urtietan gero Orbeanian biharian. Aste guztixa ekiñian emon ta harek amaitxuta-

kuan erremerixaren batera jutia zan gauzia: "nun dan jai, haraxe! Mendirik-mendi zein trenbidez-trenbide, Zaldibarreko tunela pasau ta han faten giñan gu, lokatz artian. Txikito batzuk eran da salto batzuk ein da merienda moruko bat eiñ da etxera halako baten! Zapata mordo bat apurtu ta beste lokatz mordo bat ekarri." Sarri eiñ bihar izaten eben erremerixatik bueltan neskalaguntzen, "puntaik punta, nora zoiazetik barik! Haruzkua bastante ondo, baiña bueltia... Gabian ta, argirik ez egoteran, igual harrixa dalakotan salto ein ta pozua galanta!". Baiña beti bez oiñazian, Pedrok gogoratzen daben lege: "batzutan bizikletan faten nitzan, orduan bizikletia zan una joya como un Mercedes. Akordau bez



pintxazua eiñ bihar danik! Graziak goixaldekorik gixiao izaten zala orduan; urrin jun bihar ez bazan, bederatzi txerdixak hamarretarako etxian. Bestelan latigo, atia serratuta be igual deskuidatzen baziñan!". Gaztiak gazte orduan zein gaur egunian, "ni ez naz borrokazalia izan, baiña hamen auzuan euan taberna bat ta jairik ez zan pasatzen burrukan ein barik baten batzuek. Eran be mordo bat ta hurrengo egunian bertsotan

ein ta lagun atzera. Aste guztixan ez zan txikito bat be eraten ta dra! baliente. Nobixia dala ta eztala, fan etxera ta harrika be igual ta bidera urten ta blastiuak emon ta... Bixamonian lepotik oratu ta lagun!". Gerria be ikusitxakua da "kontrari-xuan abioiak goixan ta norbera zuluak topau ezin ta enemigua aurrekaldian, hontara zain. Ha bizimodua, ha!". Dudaik barik, gaur egunekua hobia. Bai, jauna!

Estibalitz González

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO

ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA

J. CASADO




Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK


Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

Hamburguesería

TITANIC



Kantabria 2
Tlf: 17 67 83